

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI ODOL EMAILEAK

Odol ematea, gaur

Ez dute etenik izan odol emateak, udaren ere; eta gaurkoan izango dute hurrengo zita hernaniarrek, ikasturte berriarekin. Anbulatorioan izango da aukera, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara, odola eman edota organo donante egiteko. ||

HERNANI BERDINTASUNA

Jabetze Eskoletako 7 aukerak, gaurtik irekita

Plaza Feministan (Aristizabal kalea 7, behe) eman daiteke izena Jabetze Eskoletan, gaurtik aurrera. Ikasturteari hasiera emateko emanaldia, berriz, irailaren 13an izango da, Leokan, Bihotx taldearekin.

IKASTURTE berri honetarako ere antolatu ditu Jabetze Eskoletak, Udaleko Berdintasun Sailak. Guztira, zazpi ikastaro izango dira, eta izena emateko epea gaur irekiko da.

Jabetze Eskoletako helburua izaten da hausnarketarako eta formaziorako topagunea sortzea, emakumei begira, beren eskubideen jabe egin, eta bizitzetan autonomia eta konfiantza izan dezaten. Era berean, emakumeen arteko sareak sortzea ahalbidetu nahi da. Hori lortzeko, eskolen bidez emakumeek jabetze edo ahalduzko prozesua egitea da asmoa, ikuspegi feministatik errealitatea aztertuta eta hau aldatzeko tresnak eskura jarrita.

Izen-ematea, irekita

Denera, zazpi ikastaro jarri dira aukeran, eta izena emateko epea, guztietarako, gaur irekiko da. Hiru bide erabili daitezke horretarako: Plaza Feministara bertara joatea (Aristizabal kalea 7, behe), 943 33 70 17 telefonora deitzea, edo idaztea berdintasuna@hernani.eus helbide elektronikora.

Ikastaroren bat doan izango da, eta gainontzekoetan, klase orduko euro bat ordainduko da. Guztietan haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da.

Ikastaroak, hiru multzotan

Aukeran jarri diren ikastaroak hiru multzotan banatu dira: emakumeen nortasuna eta subjektibitatea aztertzea helburu dutenak; kultura birdefinitzeari begira antolatutakoak; eta autonomia suspertzen lagundu nahi dutenak.

Aurrenekoaren barruan, batetik, Mindfulness ikastaroa



Aukeren artean dago berriro, hastapeneko eskalada tailerra.

emango da; meditatze praktika bat da, eta gorputza eta emozioak landuko dira. Bestetik, hilerokoaren inguruko tailerra izango da, ziklo osoa eta haren faseak ezagutzeko, eta tabu eta lotsei aurre egiteko. Azkenik, argazkilaritza ikastaro berezia emango da, norbera nor den eta nola dagoen argazkien bidez jasotzeko, norberaren 'ni'a osatu arte.

Bigarren multzoaren barruan, batukada feminista, edota munduko emakumeen literatura aztertzen dituen tailerra antolatu dira aurten ere, eta era berean, gorputzen mugimendu askea landuko duena.

Azkeneko multzoan, berriz, hastapeneko eskalada tailerra egiteko aukera izango da, berriro ere.

Ikasturte hasiera Leokan, Bihotx musika taldearekin

Urtero bezala, ikasturteari hasiera emateko kontzertu berezi bat ere antolatu dute, Leokako labaderoan.

Eguraldiak trabarik egiten ez badu, irailaren 13an izango da, 22:00etan hasita. Gema Inés, Ixiar Jauregi eta Lara Mitxelena hernaniarrek osatzen duten Bihotx txalaparta taldeak, *Norabide guztiak* emanaldia eskainiko du. ||

EMAKUMEEN NORTASUNA ETA SUBJEKTIBITEA

Mindfulness nirekin eta besteekin bertoputzen. Urriaren 3tik abenduaren 12ra, ostegunetan, 09:30-11:00; gaztelaniaz, Biterin. Irakaslea: Clara Wolfram Perez. Matrikula: 16,5 euro.
Ziklikoki bizitzen: hilekoaren inguruko tailerra. Azaroaren 8an, 17:30-19:30; euskeraz, doan, Plaza Feministan. Irakaslea: Enara Iruretagoiena Domínguez.
Barrutik kanpora argazkitzen. Urriaren 2tik abenduaren 18ra, asteazkenetan, 17:30-19:30; euskeraz, Iturrolan. Irakasleak: Idoia Telleria Maritxalar eta Arantxa Erasun Urtzelaieta. Matrikula: 24 euro.

KULTURA BIRDEFINITZEN

Batukada feminista. Urriaren 11 eta 25, azaroaren 15 eta 29, abenduaren 20, urtarrilaren 17 eta 31, otsailaren 14 eta 28, martxoaren 13, apirilaren 3, maiatzaren 8 eta 22, ekainaren 5 eta 19, eta festetako irteera; 17:30-19:30, euskeraz, Langilen. Irakasleak: Arantxa Vicedo Rubio eta Ainara Sarasqueta Alberdi. Matrikula: 32 euro.
Munduko emakumeen literatura. Urriaren 3 eta 31, abenduaren 5, urtarrilaren 16, otsailaren 6, martxoaren 5, apirilaren 2, maiatzaren 7 eta ekainaren 11n, 18:30-20:30; gaztelaniaz, Plaza Feministan. Irakaslea: Mertxe Tranche Iparragirre. Matrikula: 18 euro.
Gorputz kontzientziatik mugimendu askera. Urriaren 1etik abenduaren 17ra, asteartetan, 18:00-20:00; euskeraz, Iturrolan. Irakaslea: Maider Oiartzabal Ziganda. Matrikula: 22 euro.

AUTONOMIA SUSPERTZEN

Eskalada tailerra: hastapena. Irailaren 11, 13, 16, 20, 23 eta 27an, 17:00-20:00; euskeraz. Irakasleak: Patri Espinar Labian eta Arantxa Arieta Garcés. Matrikula: 30 euro.
DENETAN IZEN-EMATEA: Plaza Feministan (Aristizabal kalea 7), 943 33 70 17 edo berdintasuna@hernani.eus.

HERNANI AIRE GARBIA

Bilera irekia gaur, berriro ekiteko

Bilera irekia deitu du gaur Hernaniko Aire Garbia taldeak, oporralditik bueltan martxan jarri eta gaiei berriro heltzeko. Biterin izango da, 19:00etan. ||

HERNANI UDALA

Asfaltatze lanak, gaurtik berriro

Gaur hasiko dute asfaltatze lanen bigarren fasea, Itxas-Buru sagardotegitik aurrera. Atzo egin zituzten prestaketa lanak, eta gaurtik, aparkalekua hutsik eta bidea itxita egongo dira. Seinalizazioa eta langileen aginduak jarraitzeko eskatu dute. ||

GOIZUETA UDALA

Ikastaroak eman nahi dituztenek, ostiralera arte epea

Urtero bezala, hainbat ikastaro eskainiko ditu Goizuetako Udalak, datorren ikasturtean zehar; eta orain dute proposamenak aurkezteko epea, ikastaroren bat eman nahi dutenek. Ostiralera arte izanen dute aukera, eta ikastaroaren deskribapen zehatza aurkeztu beharko dute, udal-txean: ordutegia, prezioa, iraupena, nori zuzendua... Beharrezkoa da autonomia izatea. ||

ASTIGARRAGA AIZTONDO

Abesbatzak entsaio irekia, etzidamu

Aiztondo abesbatza barrutik ezagutzeko aukera izango da, ostiral honetan. Izan ere, entsaio irekia antolatu du abesbatzak, 20:00etan kultur etxean. Gainera, abesbatzako kide izan nahi duenak, atek zabalik dauzka: aiztondoabesbatza@gmail.com edo 943 33 50 64. ||

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
CEPA Hernani HHI
 Helduen hezkuntza
Irailan MATRIKULA ZABALIK 2019/20 ikasturterako

- DBH-ko TITULUA lortu
- Ingelesa
- Heziketa zikloetarako sarbide frogen preparazioa
- Atzerritarrentzako gaztelera

Antziola 62, Hernani ☎ **943 33 53 18**

YABEN ENGLISH SCHOOL
 HERNANI
 ikastegia

CAMBRIDGE UNIVERSITY PRESS
 Learning Partner

2019 / 20 IKASTURTEA

MATRIKULA IREKITA
 Irailaren 2tik 10era
 Ordutegia: 10.00 - 13.00 eta 17.00 - 20.00

YABEN: Andreakale 60 ☎ 943.331763 YABEN K&S: Perkaltegi 13 ☎ 943.331763

KET
 Nahiane Agirre
 Narso Amoztegui
 Ane Ayestaran
 Manex Ayestaran
 Saioa González
 Lidre Irazu
 Aritz Liceaga

PET
 Naira Aguado
 Enara Ortega
 Mattin Amundarain
 Irati Lerchundi
 Narso Saiz
 Peru Roi

Cambridge English Language Assessment
 Exam Preparation Centre

FIRST
 Jon Garmendia
 Yanis Aguado
 Xabier Garcia
 Eneko Garmendia
 Hinar Goya
 Enara López
 Andoni Subepe
 Oier Elzendi
 Andrea Errasti

ADVANCED
 Maialen Tolosa
 Ander Leiza
 Siria Buriza
 Hego Urretabizkaia
 Aitor Pagola
 Thais Zambrano
 Silvia Aguirre
 Enara Larburu
 Kepa Salgado
 Mikel Urzulegi

Escolak irailaren 10ean hasiko dira
www.academiyaben.com



GAUR Eguraldi lasaia eta eguzkitsua izango dugu gaur. Goizean lainoa agertuko da barnealdean, eta hotz egingo du; baina berehala argitu, eta gora egingo du tenperaturak. Giro atsegina izango da, bero handirik gabe, arratsaldeko ipar-ekialdeko haize finari esker. **Min.13° / Max.22°**



BIHAR Giro ederrarekin hasiko dugu eguna, eguzkia izango baita jaun eta jabe. Baina pixkanaka, behe-lainoak agertuko dira, eta zerua estalita geratuko da, egunaren bukaeran euritara jotzeraino. Tenperaturak ez da aldaketa handirik izango. **Min.13° / Max.20°**

(euskaletan)



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI ZIKUÑAGAKO JAIK

Ostegun 'mugitua' rekin hasiko dira etzi, Zikuñagako jaiak

Lau eguneko festa prestatu dute auzoan, pala eta futbolin txapelketekin, eta aerezumbarekin hasiko dena. Asteburuan izango da ekintza gehien.

AURTEN ere ez dute huts egingo, eta beste behin, ikasturte hasiera alaitzeko parada ederra eskainiko dute Zikuñagako bizilagunek, auzoko festekin. Lau eguneko izango da jai giroa auzoan, etzi hasita.

Eta martxan jartzeko, ostegun mugitua prestatu dute. Izan ere, ohikoak diren pala eta futbolin txapelketei, hirugarren ekintza bat gehitu diete, estreinako egunean: aerezumba saioa izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita. Hori baino lehenago ariko dira palan, 17:00etatik aurrera; eta ondoren futbolinean, 20:00etan.

Eta arratsaldeko izango dira ekintzak, ostiralean ere, aste-buru beteari bidea egiteko. Horrela, jaien bigarren egunean, zenbait klasiko: buruhaundiak Las Pu'n'tilloren musikarekin, 6 urtetik beherako moto lasterketa, edota Apaxi ipuin kontalariaren saioa. Eta saltsa jarriko duten beste bi ekintza, gauean: *playback* lehiaketa, joan den urtean abiatu zu-



Haurren moto lasterketa izango da, jaietako ekintza berezietako bat.

tena; eta Hernaniko Zutik Elektrotzarangaren emanaldia.

Mus txapelketa eta bakailu lehiaketa, nobedadeak Asteburuan izango dira ekintza gehien, ohi bezala, eta zenbait nobedade ere izango dira aurtan. Hori horrela, Zikuñagako Jaiak Mus Txapelketaren aurreneko edizioa jokatuko dute larunbat gauean, danborradaren ondoren; eta igandean, bakailu lehiaketa egingo dute, goizean. Ez dira faltako, haur jolasak, tortilla lehiaketa, sagardo dastaketa, paellada herrikoia, apar festa... ||

HERNANI BOLEIBOLA

Neska eta mutil seniorren talde banarekin, denboraldia martxan

Atzo hasi zituen saioak, Hernaniko Boleibol Taldeak; eta sei talde osatuko dituzte: neska infantil eta kadeteen bina; mutil eta neska seniorren bana.

GERO eta indar gehiago dauka boleibolak Hernanin, eta horren erakusle da, denboraldi berrirako talde kopurua bikoiztekoan dela Hernaniko Boleibol Taldea. Izan ere, hasiera batean lau talde aurreikusten zituzten arren, badirudi sei talde osatzera iritsiko direla.

Senior mailako bi taldeak izango dira nobedade nagusia. Horrela, mutil seniorren talde bat izango da, aspaldiko partez, urtetan mutilen talderik ez izan ondoren. «Mutilak boleibolera erakartzea» izango da helburu nagusia, horrekin.

Nesketan ere, talde bat izango du Hernanik, seniorretan. Entrenatzeko kantxa ara-

zoak tarteko, talde horretan ariko dira neska seniorrak zein jubenilak, elkarrekin.

Seniorren bi taldeak, atzo hasi ziren entrenatzen, eta astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dituzte saioak.

Neska kadete eta infantilek, bina talde ziurrenik

Beranduago hasiko dira lanean, neska kadete eta infantilen taldeak; eta horietan ere, bada nobedaderik. Izan ere, bi talde izango dira maila bakoitzean, ziurrenik: «talde bana aurreikusten genuen, baina dagoeneko bina talde ateratzeko adina neskak eman dute izena, eta urte bakoitzeko talde

bana izango da. 2007an jaiotako taldean bi plaza geratzen dira, 2006koen taldean hiru, eta 2005 eta 2004koen taldeetan launa». Boleibolean aritu nahi duten neska-mutilek, aukera dute oraindik ere: 656 731 929 telefonoan edo *whatsapp*ez.

Neska kadeteak irailaren 9an hasiko dira lanean, astelehen, asteazken eta ostiraletan. Eta neska infantilak, azkenik, irailaren 25ean: «ordurako, entrenatzeko kantxa arazoa konpondu beharko dute kirol arduradunek. Gaur egun, soilik ostiraletan daukate ordu eta laurden entrenatzeko, eta hori konpondu beharra dago», diote Boleibol Taldeak. ||

HERNANI BERRIAK ELKARTEA

Stock Azoka, ostegun eta ostiralean

Beste behin antolatu du Stock Azoka, ostegun eta ostiralerako, Berriak merkataria eta ostalarien elkarteak. Plaza Berrin izango da, ostegunean goizez (10:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-20:00), eta ostiralean goizez bakarrik: «aukera paregabeak izango dira». ||

EREÑOTZU-HERNANI 11/13 SUMARIOA

Bazkari txartelak salgai, bihar arte

Elkartasun Asteburua antolatu dute Ereñotzun eta Hernanin, 11/13 sumarioa auziperatuei babesa adierazteko; eta larunbatean, herri bazkaria egingo dute, Ereñotzuko frontoian. Horretarako txartelak, bihar arte erosi daitezke, Ereñotzuko Irrintzi eta Hernaniko Txili tabernetan, eta Goizuetako Amaia kafetegian. Helduen txartelak 15 euro dira, eta haurrenak 7 euro. ||

Kronoeskaladan izenematea, etzi arte

Elkartasun Asteburuaren barruan, Kronoeskalada herrikoia ere egingo dute larunbatean, Hernaniko Ibaiondo poligonoan hasita. Parte hartzeko, etzi arte eman daiteke izena, Garin eta Tripontzi tabernetan, eta *elkartasunpedakadak@gmail.com* helbide elektronikoan. 7 euro dira (proba egunean ordainduko da), eta 16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte, bakarka edo taldeka, edozein bizikletarekin. Gehienez ere 150 lagunek hartu dezakete parte; betetzen ez bada, egunean bertan ere izango da aukera, udaletxeko arkupeetan. Bertan elkartuko dira partehartzaile guztiak, 17:30etan, eta poligonora joango dira, 18:30etan hasteko. Landaretik pasa, Karabelen sartu, eta Balantxa aldatatik igoko dira, Kale Nagusia zeharkatuz Plazan bukatzeko. ||

HERNANI PORTUKO JAIK

Errifako zenbaki saritua, 7335a

Abuztuaren 23tik 25era ospatu zituzten Portuko jaiak, eta urtero bezala, errifaren zozketa ere egin zuten: 7335 zenbakia izan da saritua. Bide batez, antolakuntzak eskerrak eman dizkie, auzoko bizilagunei, haien laguntzagatik; eta baita kanpotik gerturatutakoei ere. ||

HERNANI CHILLIDA-LEKU

Beñat Archiaryren kontzertua, bihar

Kontzertua eskainiko du bihar, 19:00etan Chillida-Leku museoan, Beñat Archiary musikaria eta abeslariak, Haratago taldeko musikariek batera. Sarrerak erosteko: *tickets.museochillidaleku.com*. ||

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

LOGIKALINE enpresak INFORMATIKO-PROGRAMADORE lanpostua bete behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL ALIZDA, 4 - beheko ezkerrean
MATRIKULA ZABALIK
irailaren 15era arte
KLASEAK ASTE HONETAN HASI DIRA
Ozenki abesbatzaren ensaiok
astearte-osteguna 20:00etan

943 33 12 33 - 637 85 79 62